# AMA EUSKARAREN BAKARTASUNA.[1]

¿Nun zabiltzate, seme ederrak,
Amari eskapatuta?
¿Edan zenduten bular gozoaz
Ote zaudete aztuta?
Nai zinduzteket nereganatu
Benetan erregututa,
Zaudetelako iñudearen
Esne charrakiñ galduta.

Bular samiña edaten asi
Ziñaten zori gaistoan,
Ordu ezkeroz gauza bat onik
Ez daukazute gogoan;
Piškabanaka sartu zerate
Deabruaren lazoan,
Adan ta Eba orrela galdu
Ziraden Paradisoan.

Iñude orrek jarri zaituzte
Guziyok biurriturik,
¿Zér zabiltzate, ume nereak
Elkar ikusi eziñik?;
Ona utzita charraren billa
Bazabiltzate nasturik
Bide orretan ez daukazute
Zuentzat salbaziyorik.

Ernio mendi oñazez dago
Zueidi begiratuta,
Ta Orreaga beti negarrez
Asabaz gogoratuta;
¡Ai! Kobadonga arkitutzenda
Egiyaz minberatuta,
An dago Nabas zuen galeraz
Errukipen bat artuta.

Errekachoak zapuztu dira
Ibayak datoz aserre,
Kantabriyako ur gazi fiñak
Orruak egiñaz daude;
Eta ni ama ¿nola naiz arki
Batere laguntza gabe,
Ikusirikan seme nereak
Beren borreruen alde?

Ama zarra ta, ama garbiya,
Negarrez iya urturik,
Zueidi deika emenchen nago
Nere besoak zabalik;
Utzi nazute bildoch galduben
Gisara bakar bakarrik,
Ez dakit nola otso artean
Arkitzen naizen bizirik.

---

(1) Publicamos con mucho gusto este fragmento de una pieza dramática titulada *Beotibar-ko jatzarraren oroipena Gaon judubaren galerarekin,* original del conocido poeta euskaro D. Ramos Azcarate, cuyas felices dotes son ya apreciadas por los lectores de la EUSKAL-ERRIA.

Baldiñ aurrera segi ezkeroz
Oraiñ artean bezela,
Ez det nik uste urte ascoan
Bizi izango naizela;
Gauzik onenak jan dizkirate
Gertatzen naiz chit argala,
Len eguzkiya baldin banintzan,
Gaur ez naiz, baizik itzala.

Ez badute nai zuben biyotzak
Amarengana makurtu,
Gañean diran etsai gogorrak
¿Nork? eta ¿nola garaitu?
Obe dezute alik lasterren
Guziyok nereganatu,
Bestela turmoi izugarriyak
Azpiyan artuko gaitu.

RAMOS AZKARATE ETA OTEGI.

# EL RUISEÑOR Y EL PAVO.

## FÁBULA.

—Nadie canta cual yo—decia un pavo
á un lindo ruiseñor que se mecia
en la más alta rama de un endrino.—
Cómo á cantar te atreves no comprendo
haciéndolo tan mal. ¿Aplausos quieres
ganar con ese canto miserable?
—No canto yo por conquistar aplausos,—
contestó el ruiseñor.—Canto tan solo
porque en cantar hallo placer.—¡Qué necio!
Yo con mi canto embriago á los mortales,—
el pavo replicó. —Escucha un segundo,
verás qué canto el mio tan sublime;
esto es cantar, y lo demás es cuento.—
A graznar empezó, y huyó asustado
el ruiseñor al bosque. Una ruidosa
carcajada soltó el soberbio pavo,
y dijo:—Ha huido el pobre de vergüenza.
No volverá á cantar, estoy seguro,
ahora que ha oido al rey de los cantores.
*No os asombre del pavo la jactancia,*
*que es muy propia del tonto la arrogancia.*

VICENTE DE ARANA.